

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

LURRALDE POLITIKAKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA

GOBERNUAREN ORDEZKARIORDETZA ARABAN

Industria eta Energia Arloa

Iragarkia, Zaragoza, Nafarroa, Errioxa, Araba eta Burgosko Gobernuaren Ordezkariordeztaren Industria eta Energiako Eremu Funtzionalarena, non jendaurrean jartzen den PFot-753 AC proiektuaren aurretiko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena. Proiektu horrek barne hartzen ditu eta 25,69 MWp-ko Tara eta 49,50 MWp-ko Umiko parke fotovoltaikoak eta horien ebakuazio-azpiegiturak, Zaragoza, Nafarroa, Errioxa, Araba eta Burgos probintzietan

Proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta bete behar du, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 71.a) artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53.1.a) artikuluan, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. eta 37. artikuluetan eta Energia elektrikoa garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko, hornitzeko eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 124. eta 125. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, jendaurrean jartzen da PFot-753 AC espedientearen aurretiko administrazio-baimenaren eskaera eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena. Hona hemen espedientearen ezaugarriak:

Eskatzailea: Energía Inagotable de Umiko SL (IFK: B88622485) eta Energía Inagotable de Tara SL (IFK: B88622071), Forestalia Renovables taldekoak, helbide soziala Madrilén duena (José Ortega y Gasset kalea 20, 2. solairua, 28006) eta jakinarazpenetarako helbidea Zaragozan duena (Coso kalea 33, 7.a, 50003), 976308449 eta 663484273 telefonoak eta tramitaciones@forestalia.com posta elektronikoz. Merkataritzako enpresen ordezkaria Energía Inagotable de Tara SL izango da.

Eskaeraren xedea: PFot-753 AC proiektuaren aurretiko administrazio-baimenaren eskaera eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena. Proiektu horrek barne hartzen ditu 25,69 MWp-ko Tara eta 49,50 MWp-ko Umiko parke fotovoltaikoak eta horien ebakuazio-azpiegiturak, Zaragoza, Nafarroa, Errioxa, Araba eta Burgos probintzietan.

Organo eskuduna: Aurretiko administrazio-baimena ebazteko organo substantiboa Trantsizio Ekologikorako eta Erronka demografikorako Ministerioaren Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusia da. Ingurumen-inpaktuaren adierazpena emateko eskumena duen ingurumen-organoa Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa da.

Organo izapidegilea: Zaragozako Gobernuaren Ordezkariordeztako Industria eta Energia Arlo Funtzionala (Pilar plaza, 13, 50071 - Zaragoza); Nafarroako Gobernuaren Ordezkariordeztako Industria eta Energia Arlo Funtzionala (Merindadeen plaza, z/g, 31071 - Iruñea); Errioxako Gobernuaren Ordezkariordeztako Industria eta Energia Arlo Funtzionala (Gran Vía Kalea 49, 26071 - Logroño); Arabako Gobernuaren Ordezkariordeztako Industria eta Energiako Arlo Funtzionala (Olagibel kalea 1, 01071 Vitoria-Gasteiz) eta Burgosko Gobernuaren Ordezkariordeztako Industria eta Energiako Arlo Funtzionala (Vitoria kalea 34, 09004 Burgos).

Instalazioen deskribapena:

Energía Inagotable de Umiko SL Umiko eguzki-instalazio fotovoltaikoa, 49,50 MWp/46,50 MWn-ekoa, Tauste udal-mugaratean kokatua, Zaragoza probintzian. 600 Wp/moduluko 87.570 modulu instalatuko dira ardatz batekiko jarraitzaile horizontala duen egituraren gainean eta 30 Ingecon Sun 1600TL B615 inbertsore erabiliko dira.

Energía Inagotable de Tara SL Eguzki-instalazio fotovoltaikoa, 25,69 MWp/23,70 MWn-ekoa, Zaragozako probintziako Tauste udalerrian kokatua, Zaragoza probintzian. 600 Wp-ko 45.430 modulu instalatuko dira ardatz batekiko jarraitzaile horizontala duen egituraren gainean eta 16 Ingecon Sun 1600TL B615 inbertsore erabiliko dira.

Honi lotutako ebakuazio-azpiegitura honetan datza:

“Set Tausteko J2 30/220 kV” azpi-estazio elektrikoa, Tauste udalerrian kokatuta (Zaragoza).

“Laat 220 Kv Set Tauste J2 30/220 kV – Set Fréscano 220/400 kV” goi-tentsioko aireko linea, 33,583 kilometroko luzerakoa. Tauste, Gallur, Novillas, Mallén eta Fréscano (Zaragoza) udalerrietatik igarotzen da.

“Set Fréscano 400/220 kV” azpi-estazio elektrikoa, Fréscano udalerrian kokatuta (Zaragoza).

“Laat 400 kV Set Fréscano 220/400 kV – Set Promotores Jundiz 400/220 kV” goi-tentsioko aireko linea, 185,014 kilometroko luzerakoa. Honako udalerrri hauetatik igarotzen da: Fréscano eta Mallén (Zaragoza); Cortes, Ribafrota, Ablitas, Fontellas, Tudela, Cascante, Murchante eta Corella (Nafarroa); Alfaro, Aldeanueva de Ebro, Autol, Quel, Arnedo, Tudelilla, El Villar de Arnedo, Ocón, Ausejo, El Redal, Corera, Galilea, Santa Engracia del Jubera, Lagunilla del Jubera, Ribafrecha, Clavijo, Albelda de Iregua, Entrena, Medrano, Hornos de Moncalvillo, Sotés, Ventosa, Huércanos, Uruñuela, Hormilleja, San Asensio, Briones, Gimileo, y Briñas (Errioxa); Trebiñuko konderria, La Puebla de Arganzón (Burgos); eta Bastida, Zanbrana, Berantevilla, Armiñon, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteiz (Araba).

“Set Promotores Jundiz 400/220 kV” azpi-estazio elektrikoa, Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta (Araba).

220 kV aire-lurpeko linea, Jundiz Sustatzaileak 400/220 kV – Set Jundiz 220KV (REE), 1,962 kilometroko luzerakoa. Vitoria-Gasteiz (Araba) udalerritik igarotzen da.

Aurrekontu zenbatetsia, Tara eta Umiko parke fotovoltaikoen eta horien ebakuazio-azpiegituraren proiektuarena: 138.235.753,50 euro.

Aipatutako parke fotovoltaikoen garraio-sarearen sarbide-baimena dute Red Eléctrica de España SAREN Jundiz 220 kV azpi-estazio elektrikoan, 2021eko martxoaren 29an emana.

Helburua: Energia sortzea merkaturatzeko.

Bai proiektu honen aurretiko administrazio-baimena, bai ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta izapidetzea –Trantsizio Ekologikorako eta Erronka demografikorako Ministerioaren eskumenekoak dira horiek onartzea– jendaurrean jarri behar dira proiektuaren eta ingurumen-inpaktuaren azterketaren informazio publikoa batera eginez, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikulua arabera.

Horren berri ematen da denek jakin dezaten eta proiektua, ingurumen-inpaktuaren azterlana eta, beraz, dokumentu tekniko eta ingurumeneko guztiak aztertu ahal izan daitezzen, bai Gobernuaren Ordezkariordeztan Zaragozan, Nafarroan, Errioxan, Araban eta Burgosen Industria eta Energia Arlo Funtzionalean, aurretiko hitzordua eskatutakoan, bai esteka honetan: https://www.mptfp.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/delegaciones/aragon/proyectos-ci/proyectos.html.

Arlo horietan, egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira idatzizko euskarri fisiokoan Gobernuaren Ordezkariordeztan horien erregistro orokorrean, edo Estatuko Administrazio Orokorren <https://rec.redsara.es> erregistro elektronikoaren bidez, edo Administrazio Publikoen

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduan, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela Administrazio Publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, horietako edozeinek jendaurreko informazioaren izapide honetan egindako alegazioak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 30a

Arabako Ordezkariordeztako Industria eta Energia Arlo ordeztako zuzendaria
ENDIKA URTARAN MOTOS